

NORA JOAN DA ARGIA? (+4)

Ruben Ruiz

Irudiak: Jokin Mitxelena

Aizkorri, Bilbo, 2006

Fantasia errealista denean

Haur poesiari buruzko entseiu batean, haur fantasia errealista dela irakurri nuen eta, beraz, norbaitek esaten baldin badu argia joan egin dela, logikoena dela haurrek, orduan, argia nora joan den galdetzea.

Eta argia joan egin da Saioaren gelan, eta gela ilunpetan geratu da, baina badirudi argiaren antzeko zerbait —lasaitasuna, atsegina, poza— joana dela goiz-goizetik, ama aldarte txarrez esnatu da, Saioa ikaratu egin da Xugux txakurraren zaunkekin, andereñoa ozpinduta dabil, bi ikasle mutur joka... Baina tiritu batek, opil batek, musuek, miazkada batek atzera ekarriko dute argia, eta lasaitasuna, eta atsegina, eta poza.

Nora joan da argia? sinbolismoz beterik datorkigun ipuina da, finezia handiz idatzia —paralelismoak, pertsonifikazioak, hitz joko sotilak...—, Jokin Mitxelenak bizitasun handiz irudikatua —hain testu laburretan, ilustratzaileak lan handia egin behar du pertsonaiak definitze aldera, eta alde horretatik ipuin honetako marrazkien irakurketa ere oso da ederra—, eta pozgarria da Ruben Ruizen idazle oraindik “berria” gero eta ezagunagoa izatea euskal haur literaturan, eta pozgarria da lan honekin iazko haur literaturako Etxepare Saria irabazi izana. Hitz batez, alde askotatik ahogozo ederra uzten duen liburua.

Laura Sagastume